

- *Marimutilla naiz eta zer?*, Elkar, 2016, cuento.
- *Loaren inbasio isila*, Elkar, 2016, novela infantil.
- *Ixon*, Elkar, 2017, cuento.
- *Mujeres y niñas*, Balas trazadoras, 2017, poesía.

SALIR DEL VERANO

*Salir del último o penúltimo
baño
con el sol tras los árboles
pestañeando
y los rizos del agua
en la espalda
y ganarle una carrera al frío
con la piel
toda coloreada.*

MARIPOSA NOCTURNA

*Mariposa nocturna,
adoro la caricia de tus alas.
Tímida, resignada ramita, y al segundo,
alocado tantán.
Ardes cuando te fundes en mis brazos.
Delicado milagro
de bronce y terciopelo,
nada hay más doloroso que quemarte.*

157



**Jimenez Maia,
Josu**
(Iruñea, 1967)

Iruñean sortua, 1967an; aspaldi Berriozarkotua. Ofizioz ingeles irakaslea eta idazlea afizioz. Olerkigintzan, bi haiku-bilduma, *Gerezi garaiko haikuak* liburua (Maiatz) eta *Orbel Azpiko Haikuak* (Denonartean), baita olerki solteak ere *Muxgorri* antologian, *Luces y sombras* eta *El Coloquio de los perros*-en.

Ohiko kolaboratzailea Nafar Ateneoaren *Constantes Vitales* aldizkarian, *Maiatz* aldizkarian eta *Hatsa* olerki bilduman ere.

Narratiban, hainbat ipuin ditu sarituak eta argitaratuak, besteak beste, Tene Mujika lehiaketa, Orixe saria, Iparragirre saria eta Atarrabiako Petri saria. Haur eta Gazte literaturan, *Johanes*, *Bargotako Aztia* liburua, (Txalaparta) eta *Hiru Miru* album ilustratua (Denonartean). Artikuluak ere, ehun ta berrogeita hamar baino gehiago ditu argitaratuak han-hemenka.

Itzultzaile gisa, Noriko Matsui-ren *How to perform kamishibai* eta *Ryookanen 101 haikuak* liburuak itzuli ditut, baita poeta batzuen olerkiak ere: Idea Vilariño, Wislawa Szymborska...

"Poesia terminoa poesis hitz grekotik dator, eta sorkuntza, asmakizuna eta fikzioa zuen esanahia; ondorioz, obra literario oro poesiatzat jo zitekeen. Literatur teoriei begiratzen bazaie, berriz, poesia ez zen luzaroan generoetan sartu, izendatze orokorra baitzen, dramatikoa eta narratiboa biak poetikoak baitira, erran nahi baita, etimologiak dioen bezala, sorkuntza lanak."

Halarik ere, garaiez garai, poesia, eta bereziki lirika, hirugarren genero berezi gisa agertu eta finkatu da erromantizismoaz geroztik. Euskaltzaindiak duela hamar urte argitaratutako *Literatura Terminoen Hiztegi* marduletik ateratako definizio etimologiko horretatik harago, gaur egun poeta dela inork gutxik aitortzen du, aitorten hutsak zor lezakeen oihartzun isilaren beldur. Eta halarik ere, bada jenderik poesia irakurtzen duenik; areago, bada jenderik poesia idazten duenik ere! Guztiarekin ere, harriduraren marka guztiak hautsi zuen lehengoan nire auzokide batek. Igogailura sartu ginen elkarrekin: ni hirugarren solairura nindoan; auzokidea, aldiz, laugarrenera. Igogailuan eguraldiaz hitz egiteko aukera paregabea profitatu ordez, hauxe galdetu zidan auzokide erdaldun peto-petoak:

-"Oye, que me han dicho que tú escribes..."

Baietz erantzundakoan, segituan beste bat:

-"¿Oye, y escribes en vasco?"

Baietz esatean, harridura marka handi bat marraztu zitzaion bere kopetaren pantailan.

-"¿Oye y qué escribes, novelas?"

Nik ipuinak eta artikuluak eta irrati-kolaborazioak eta poemak idazten ditudala esan nion; hitz batean, "poesia".

"Poesia" hitza entzutean, harridura marka erraldoi bat finkatuta gelditu zitzaion kopetan; ahoz bete hertz gelditu zen, zer esan ez zekiela; bere kopetaren pantailan harridura marka ikusgarri bat (!) zeukan. 4. solairuko auzokidea ikusten dudanean, erran eginen diot TK aldizkarian nire poema bat atera berri dutela, ea harridura marka berriz ikusten dudana auzokidearen kopetaren pantailan.

SUTONDOAN

*Sutondoan sulamek
enborra dute besarkatzen,
azken hilabeteotan pilatutako
nekeak ditu lurruntzen,
ene gorputz ahitua
kemenez biziberritzen.
Kanpoan udaberria omen da,
baina udaberria berantiarra da
gure mendietan
ta zeruaren urdina, engainagarria.
—oraño mendi-kasketan elurraren zuria—.
Sutondoan sulamak zenbatzeko lan ezinezko
naiz murgiltzen;
eguerdía da, ta gaur
sagardoaren txinpartaren bizia
partekatuko dugu
—edo, nahiago baduzu, poema hau—
aspaldiko partez, sutondoan.*

159



**Jiménez Reinaldo,
Jesús**

(Tudela, 1962)

Nació en Tudela en 1962. Se licenció en Filología Hispánica y se diplomó en Lengua Inglesa por la Universidad de Zaragoza. Reside en Rivas Vaciamadrid (Madrid) desde 2002, donde ejerce como profesor de Lengua Castellana y Literatura en un instituto de enseñanza secundaria.